

HARRERA FAMILIENTZAKO ETA HARRERAN DAUDEN ADINGABEENTZAKO LAGUNTZA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Jatorrizko familiekin bizi ezin diren adingabeentzako arreta

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki laguntzeko zerbitzuak hurrei eta haien harrera-familiei laguntzen die harrera-prozesu osoan ([2.7.6.1 fitxa](#)). Horretarako, laguntza eskaintzen da harrera-prozesuaren fase guztietan:

- Familia-harrerari buruzko informazioa ematea: prozedura, harreraren egikaritzea eta horren ondorioak edo eragina,
- Harrerarako hautagai diren familiak aukeratzea, inguruabarrak baloratuz, haurraren edo nerabearen beharrezanean erantzungo zaiela bermatzeko egokiak diren ala ez zehaztearren.
- Familia hartzaileei laguntza eta prestakuntza espezializatua ematea.
- Familia-harrerak aldi behin gainbegiratzea, harreran dagoen adingabearen beharrezanetara egokitzen direla egiaztatuz.

Gainera, beste jarduerak batzuk ere egiten ditu, besteak beste:

- Familia-harrera sustatzea, herritar guztiei zuzendutako dibulgazio-kanpainen eta familia hartzaileak erakartzeko kanpainen bidez.
- Familia hartzaileen zerrenda eguneratua izatea.
- Familia-harrerari lotutako gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoak izapidetzea.
- Familia biologikoari laguntzea.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

- Haur edo nerabe bat hartu nahi duten eta dagozkion baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo familiak.
- Familia-harrera babes-aukera egokitzat jotzen den adingabeak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Familia hartzaileen kasuan:

- 18 urte edo gehiago.
- Harrera eskatzen den Lurralde Historikoko udalerriren batean legezko egoitza duen erroldatzea.
- Familia-harrera eskatzea eta eskatutako baldintzak betetzea.
- Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko, prestatze- edo formalizatzeko-prozesuan dagoen familia harreragileko kide izatea; edo hartutako adingabearen familia biologikoko kide izatea.

Adingabeen kasuan:

- 18 urtetik beherakoak.
- Familia-harrera babes-aukerarik egokiena dela erabakitzen duen erabaki administratibo edo judiziala edo borondatezko zaintzaren eskaera.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Araban:

Posta elektronikoa: acogimiento@araba.eus | Telefonoa: 945 77 30 52

Bizkaian:

Helbide elektronikoa: acogimientofamiliar@bizkaia.eus | Telefonoa: 944 470 737

Gipuzkoan:

Helbide elektronikoa: familiaharrera@gipuzkoa.eus | Telefonoa: 943 11 25 22

Informazio gehiago

Edozein kasutan, zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzura** jo dezakezu. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Harrera familientzako eta harreran dauden adingabeentzako laguntza Araban](#)
- [Harrera familientzako eta harreran dauden adingabeentzako laguntza Bizkaian](#)
- [Harrera familientzako eta harreran dauden adingabeentzako laguntza Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)